

Mus Txapelketa – DAD 2015

Duela gutxi irakurri dut prentsan IU-ko presidenteak, aisialdirako gogokoena zer duen galdetuta, zera erantzun zuela: **"Lagunekin musean egitea"**. Harritu egin ninduen. Bai zintzotasunagatik eta bai bere gain harturiko arriskuagatik. Eta "bere gain harturiko arriskuagatik" esan dut, zeren eta, gaur egun, honelako galderei kristoren "zozokeriak" erantzuten baitzaizkie, morroi kultu, sentibera eta oso sakona den irudia emateko baliatuz: "Arabiar inbasioak sai arreen izaeran izandako eragina eta horrek ugalketan izandako ondorioak aztertzen ditut", "XX. mendearen erdialdeko grapa-ateragailuen bilduma egiten dut", "gainetik zabaltzen diren arropa-garbigailuen eskuliburuei buruz aurkitzen dudak guztia biltzen ari naiz"...

Baina are gehiago harritu ninduen gaur egun adiskidetasuna (edo dena delakoa) "sare sozialetan" tuit, whatsapp edo antzekoen poderioz mantentzen den mundu honetan, oraindik ere badagoelako jendea lagunekin elkartzeko eta mahaian mus-partida batzuk jokatzeko astia hartzen duena, konkistatu beharreko berrogei harritxo tartean eta, izuaren tresnak (mugikorrak, tablet-ak, ipad-ak...), Western edo Oesteko pistolak bezalaxe, ongi gordeta eta deskonektatuta utzirik sarrerako armairuan.

Mus zale guztiek ongi dakiten bezala, irabazteak sortzen duen sentipen eta alaitasunaz, txintik ez dugu esango, horrek sekulakoa izan behar baitu...

Ez nago 'belarra' erreta, ez, eta ez dut hau idazten azken Txapelketan errondak behin eta berriro ordaindu ditudalako, bai zera! Baina atsekabez ikusten dut, elurretako lehoinabarra edo iberiar katamotza bezalaxe, giza eta gizarte-harremanak ere galzorian eta desagertzeko egoera kezkarrian daudela.

Eta Mus jokoa horren adibide bat besterik ez da. Urtez urte, astiro baina atzerabiderik gabe, gure txapelketan izena ematen duen bikote kopurua gutxituz doa. Parte-hartzaileen piramideak sendoa eta zabala da goialdean (urtetsuenen artean), gero estutuz doa, gerri mehe-mehea du guztiok ezagutzen dugun belaunaldi-zuloan, eta oso ahul eta ezegonkorra du oinarria. Aukera honetaz baliatuz, zorionak 20-30 urteko tartean "beteranoekin" gogo eta garaipenetan norgehiagoka aritzen diren titan bakan horiei, etorkizuna beraiena da, eta gizartea asko aldatu arren, nahikoa izango da egun batean afari-merienda egiteko geratzea eta gero partida batzuk jokatzeko txapelketa hasi, garatu eta burutzeko. Nahiago nuke oker egongo banintz! Eta ez dut esaten musaren etorkizunagatik bakarrik...



Baina, tira, nire burutazioak utzi eta ea inbidia pixka bat ematen dizuedan hiru aste luze hauetan gozatu dugunaz kontatuz, pareak elkartzen saiatuz eta, horrelakorik ez dagoenean, badauzkagun itxurak eginez, enbido eta hordagoak bota eta aurkaria kikilaraziz.

Hiru talde Donostian eta bat Erretereria aldean, guztira 25 bikote izena emanda: hori Txapelketaren lehenengo fasean. Partidaz partida, hurrengo fasera pasatzeko irrikaz, beti irabazten digun “lelo” horretaz mendeku hartu nahian eta, zergatik ez esan, erronda bat besteen kontura hartzeko asmo biziareakin, 12 bikote pasa ziren bigarren fasera seina binomiotako bi taldetan.

Bigarren fase hau gogorragoa da, 4 bikote bakarrik igarotzen baitira azken fasera, eta jokaldi bakoitza ezpata-hotsen artean egiten da. Aste gogorraren ondoren, bi bikote beterano iritsi ziren finalerdietara: batetik Pedro García eta Iñaki Luján, eta bestetik Jesus Perez Brisimiri eta Juan Mari Antía... eta giroa Barça eta Bayern artean baino beroagoa! Beste finalerdian, bikote gazte bat (baina pixkanaka gora egiten ari dena), Iñaki Garmendia e Iker Alzate-k osatua, bikote “berri” batekin aurrez aurre: Jose Manuel Goenaga, DADeko lehendakaria, eta Iñaki Zabala, lehen aldiz elkartuak Txapelketa hau jokatzeko, eta, egia esanda, oso ondo moldatu ziren elkarrekin.

Lehia handiko bi finalerdi jokatu ondoren, Perez Brisimiri eta Antia batetik, eta Goenaga eta Zabala bestetik, final handian aurrez aurre. Ordu berean finalerdietako galtzaileek hirugarren eta laugarren postuen bila jokatu zuten.

Inork ez zuen ezer oparitu eta finalak aurreko partida guztiak bezain gogorrak edo are gogorragoak izan ziren.

Azkenean Juan Marik eta Jesusek lortu zituzten txapel irrikatuak, afariak beraientzat eta bizilagunentzat Zuberoa jatetxean, Errioxako ardoa Magnum tamainan, eta DAD Kutzaren ordezkari izateko gonbita Alacanten maiatzaren bukaeran.

Josema (presi) eta Iñaki, bigarren postuarekin, zeru-goietan sartu ziren eta Mirador de Ulía-ko afariekin “konformatu” ziren, gehi Errioxako ardoarekin eta Gipuzkoa Alacanten ordezkatzeko erantzukizun eta ohorearekin.



Pedrok eta Iñakik afaritarako txartelak eskuratu zituzten, bere kutunekin batera, Ondarretako Txomin-en afaltzeko, gehi “mama goxua”rekin botila handi batzuk.

Bukatzeko, laugarren postuan, eta etorkizunean podiumera igotzeko lehen urratsa da, Iñaki eta Iker, etxeoandreekin, Agorregi-n (Ibaetan) afaltzeko moduan etxeratu ziren, eta noski Errioxako upategietako ardo-bonbillekin.

Giro hobezinean, Aratz-en (lehiaketa osoaren jokalekuan) afaldu genuen 20 parte-hartzailek baino gehiagok. Eta otordua ondo eta merke egin ondoren, eta noski, sari-ematea egin ostean, bikain amaitu genuen txapelketa ohiko lehiaketa lasterrarekin.

12 bikote aurrez aurre eta, partida bizkor eta zirraragarriak esprintean jokatu ondoren, Betelu eta Joxan Etxaniz izan ziren txapeldunak, urdaiazpiko pare bikaina sari gisa jasoz. Beste final lehiatsu batean, Askasibar-tarrak, aita-semeak, txorizo, saltxitxoi eta solomo iberikoko piezekin joan ziren etxera. Eta pixkanaka, gainerako parte-hartzaileak ere joko-zelaia utziz joan ziren, sari mamitsuekin: antxoa-panderetak, bertoko gaztak, 6 garagardoko packak...

Datorren urtean, gutxienez gauza bera, ez da gutxi eta, eta parte-hartzaile gehiago izaten baditugu, lan handiagoa antolatzailearentzat, baina askoz hobeto guztiontzat.

Ea nork erantzuten dion hordagoari !!!

X.Unanue